



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko otsailaren 10a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa ezetsi du (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Erriberriko Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (3. or.).

—Legelari Nagusi Silvia Doménech Alegre andrea izendatzea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko Burutzaren eginkizunak behin-behinekoz har ditzan (28. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko otsailaren 6an, ezetsi egin du Navarra Suma talde parlamentarioak 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2020ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Erriberriko Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Erriberriko Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erriberriko Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (4. or.).
- II.** Erriberriko Udala (5. or.).
- III.** Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (6. or.).

IV. Iritzia (7. or.).

IV.1 Auditoretza finantzarioko iritzia (8. or.).

IV.2. Legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia (9. or.).

V. Kontu orokorraren laburpena (10. or.).

V.1. Aurrekontu-betetzearen egoera-orria (10. or.).

V.2. Aurrekontu-emaitzaren egoera-orria (11. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (11. or.).

V.4. Egoera-balantzea (12. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontua (13. or.).

VI. Konklusioak eta gomendioak (14. or.).

VI.1. Udalaren aurrekontu orokorra (14. or.).

VI.2. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2018-12-31n (15. or.).

VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (16. or.).

VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena (17. or.).

VI.5. Kudeaketa-alor aipagarriak (17. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta 2019rako fiskalizazio-programari jarraituz, Erriberriko Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, honako hauek deskribatzen ditugu: udal antolamendua, toki entitateak ematen dituen zerbitzuak eta araudi erregulatzailerak; hirugarren atalean, fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa azaltzen ditugu; laugarren atalean, Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrari buruzko gure finantza-irritzia ematen dugu; bosgarren atalean, Kontu Orokorraren laburpen bat erantsi dugu; eta seigarrenean, honako gai hauei buruz lortutako konklusio eta gomendio batzuk ematen ditugu: Udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea, aurreko txostenetako gomendioen jarraipena eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Landa-lana 2019ko iraila eta urria bitartean egin zuen kontratatutako auditoretza-enpresa baten, auditore baten gainbegiratzearen eta zuzendaritzaren pean, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzarekin.

Jarduketa horren emaitzak Erriberriko Udaleko alkateari eta alkate ohiari jakinarazi zitzaizkien, egokitzat jotzen zizuten alegazioak aurkez zitzaizkien, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legeari 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Epea iraganda, ez da alegaziorik aurkeztu.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. ERIBERRIKO UDALA

Erriberriko udalerrria Erriberriko merindadean kokatuta dago, Tafallako eskualdean; zuzenbideko 3.931 biztanle dauzka 2018ko urtarrilaren 1ean, eta 83,2 Km²-ko azalera du.

Udalaren gobernu-organoak Osoko Bilkura eta Alkatea dira.

Erriberriko Udalak ez du sortu ez erakunde autonomorik ez tresna-izaerako enterik udal zerbitzuak emateko, eta 2018ko abenduaren 31n honako zenbateko ekonomiko adierazgarriak ditu:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2018-12-31n
Udala	4.123.573	3.721.680	37

Udalak ondoko entitateetan hartzen du parte:

- Mairagako Mankomunitatea, zeinaren bidez ematen baititu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua.
- Erriberriko eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Nafarroako Erdialdeko Partzuergoa, hainbat zerbitzu emateko (turismo-jarduerak eta enpresa txiki eta ertainentzako aholkularitza, besteak beste)

Zerbitzu mankomunatu horiek guztiek 165.429 euroko gastua ekarri diote Udalari 2018an.

Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa	Zeharkako kudeaketa	Mankomunitatea
	Udala	Zerbitzu-kontratua	
Argiteria publikoa		X	
Hilerria	X		
Kale-garbiketa	X		
Edateko uraren etxeetako hornidura			X
Estolderia			X
Hondakinen tratamendua eta bilketa			X
Babes zibila	X		
Gizarte zerbitzuak			X
Kirol instalazioak	X	X	
Musika eskola	X		

2018an Udalari aplikatzeko zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta araudi sektorial indarduna ere.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Erriberriko Udalaren 2018ko ekitaldiko finantza-fiskalizazioa eta legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa egin dira, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2018ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontuko ei buruz ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea ekitaldian Udalak egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2018ko Kontu Orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauekin.

- Aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea.

Aurreko iritzia emateaz gainera, lanak barne hartu du 2018rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetze-maila berrikustea.

Fiskalizazioaren irismena Erriberriko Udalaren 2018. urteko Kontu Orokorra da, zeina honela osatuta baitago Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitatearen Instrukzio Orokorra onesten duen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuaren arabera:

- Udalaren beraren kontua:

- a) Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.

- b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea, zeina egoera-balantzeak eta galdu-irabazien kontuak osatzen baitute.

- c) Udalaren kontuaren eranskinak: diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria, balioen egoeraren egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzailtzaren txostena.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2018ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legezkotasuna betetzeari dagokionez, irismena txosten honen VI. epigrafean aipatzen diren berrikusitako eragiketei dagokie.

IV. IRITZIA

Erriberriko Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik gabeko Kontu Orokorra egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko maiatzaren 23an onetsi zuen Kontu Orokorra, behin araudian eskatutako izapideak bete ondoren.

Udalak bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauarekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2018ko ekitaldiko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezketasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruz ISSAI-ES 200en ezarritakoen arabera, bai eta betetzearen fiskalizazioari buruzkoa den ISSAI-ES 400 delakoan ezarritakoen arabera; halaber, kanpo kontrolako organoen fiskalizazioari buruzko gida praktikokoak erabili ditugu. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta eragiketen legezketasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatzeko aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizketasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, aurkezpen hori bere osotasunean hartuta.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta betetzearen gainean egin dugun fiskalizazioari buruzko iritziak funtse izateko.

IV.1 AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Ekitaldia ixteko garaian balantzeko ibilgetua 15,9 milioi eurotan baloratuta dago. Ezin dugu saldo hori babestu 2017ko ekitaldiaren itxieran ageri den inbentarioaren saldoarekin (25,2 milioi euro).
- Diru-bilketa zaileko eskubideak 200.758 eurotan azpibaloratuta daude, saldotik itxitako ekitaldietako hartzekodunen kontu bat deskontatu delako; beraz, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina zenbateko horretan gainbaloratuta dago.
- Ezin izan dugu egiaztatu ekitaldiko lehen sei hilabetei dagokien saldoaren zatia, zeina, aurrekontua gauzatzeko oinarrien arabera, bilketa zaileko eskubidetzat hartzen baita.

Auditoretza finantzarioko iritzia, salbuespenekin.

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako norainokoaren mugek izan ditzaketan eraginengatik eta deskribatutako egitateek dauzkaten eraginengatik ez bada, Udalaren Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi adierazgarri guztietan, Udalaren ondareari eta 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak, aplikatzen den informazio finantzarioari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

Azpinarra egiteko paragrafoa

Honako gai hauek direla-eta arreta deitu nahi dugu:

- Egoera balantzearen zordunen saldoaren barruan, 1,87 milioi euroko zenbatekoa dago, zeina behar bezala islatuta baitago diruzaintza-gerakinean, diru-bilketa zaileko eskubideen kontzeptuan. Erriberriko Udal Plan Orokorreko UER-3 exekuzio-unitatearen urbanizazio-kuotei dagokie, jabekide batzuek ordaintzeke jarraitzen baitute. Unitate horren 2008ko ekitaldiko birzartze-proiektutik eta ondorengo behin-behineko eta behin betiko likidazio kontuetatik sortu da zenbatekoa. Zor guztiz exekutibo eta irmoa da, behin betiko likidazio-kontua egoitza judizialean berretsi baita. Txosten hau idazten den unean, premiamendu-bidean daude oraindik ere.

Aipatutako hirigintza-jarduketa lankidetzaren bidez kudeatu zen, eta, beraz, Erriberriko Udalak urbanizazioa egin behar izan zuen, eta kostu osoa bere gain hartu. Jabekide guztiek urbanizazio-kuota guztiak ordaindu ez zituztenez, 2010eko ekitaldian 2,14 milioi euroko mailegu bat hartu behar izan zen; kopuru horretatik, izan ere, 1,37 milioi euroko zorra zegoen 2018ko ekitaldia ixtean, hau da, zenbatekoaren ehuneko 64.

- Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari dagokienez, zorpetze-maila diru-sarreran arrunten ehuneko 99koa da. Adierazle horri dagokionez, tokiko ogasun-legerian eskatutako ehuneko 110eko gehieneko mugaren azpitik dagoen arren, beste zorpetze batera jo beharko balitz, Nafarroako Gobernuaren alde aurreko baimena lortu beharko litzateke, adierazlea diru-sarrera arrunten ehuneko 75etik gora baitago; betiere, aurretik aipatutako ehuneko 110eko muga ezin izanen da gainditu.

Gai horiek ez dute gure iritzia aldatzen.

IV.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Aurrekontuaren exekuzio-oinarrietan gastuen aldez aurreko fiskalizazio mugatuaren araubidea aurreikusi da, tokiko ogasun-esparruan xedatutakoaren aurka, zeren eta Erriberriko Udala 50.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrria baita.
- 148.523 euro ordaindu dira hainbat zerbitzu- eta hornidura-gasturengatik, eta ez dago jasota dagokion esleipen-prozedura izapidetu denik.
- Ikastetxea garbitzeko kontratua ehuneko 31n aldatu da, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean aurreikusitako ehuneko 20ko gehieneko muga gaindituz; muga hori gaindituz gero, kontratua automatikoki suntsiarazi behar da. Kontratua, ordea, ez zuten suntsiarazi, legez ezarritakoaren aurka, aipatutako muga gainditu arren.

Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia, salbuespenekin

Gure iritziak, egindako lanaren irismena kontuan hartuta, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako ez-betetzeen eraginarengatik ez bada, Udalaren 2018ko ekitaldiko jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

V. KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren egoera-orri garrantzitsuenak erakusten ditugu.

V.1. AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak, kapituluz kapitulu**

Deskribapena	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketa (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	1.524.712	-37.829	1.486.883	1.435.772	97	1.412.320	98	23.452
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	1.474.339	70.045	1.544.384	1.527.766	99	1.425.179	93	102.587
3. Gastu finantzarioak	70.900	-2.000	68.900	67.832	98	67.832	100	0
4. Transferentzia arruntak	193.056	3.529	196.585	190.342	97	167.317	88	23.025
6. Inbertsio errealak	363.421	403.371	766.792	252.664	33	251.272	99	1.392
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	248.815	0	248.815	247.304	99	247.304	100	0
Guztira	3.875.243	437.116	4.312.359	3.721.680	86	3.571.224	96	150.456

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak (%)	Kobrantza	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	1.318.855	0	1.318.855	1.414.506	107	1.296.266	92	118.240
2. Zeharkako zergak	52.000	0	52.000	79.450	153	62.756	79	16.694
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	688.138	0	688.138	666.515	97	505.408	76	161.107
4. Transferentzia arruntak	1.207.674	3.442	1.211.116	1.230.065	102	1.227.921	100	2.144
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	346.962	0	346.962	324.111	93	295.297	91	28.814
6. Besterentzeak Inbertsio errealak	0	0	0	46.421	100	46.421	100	0
7. Kapital transferentziak eta bestelako kapitaleko diru-sarrerak	261.614	107.322	368.936	452.505	123	331.298	73	121.207
8. Finantza-aktiboak	0	326.352	326.352	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	3.875.243	437.116	4.312.359	4.213.573	98	3.765.367	89	448.206

V.2. AURREKONTU-EMAITZAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2017*	2018
+ Aitorturiko eskubide garbiak	3.813.631	4.213.573
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	-3.658.822	-3.721.680
Aurrekontu-emaitza	154.809	491.892
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-39.161	-199.884
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	153.524	40.074
Aurrekontu-emaitza doitua	269.172	332.083

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2017*	2018
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	610.435	658.734
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	380.407	448.754
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	2.088.703	2.096.777
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	271.695	272.255
(+) Ordainketen itzulketak	0	0
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-2.130.371	-2.159.052
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	755.240	589.757
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	317.534	150.456
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	200.758	202.088
(+) Diru-sarreraren itzulketak	0	548
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	0	0
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	236.948	236.665
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
(+) Diruzaintzako funts likidoak	528.519	703.654
Diruzaintza-gerakina, guztira	383.713	772.631
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	199.884
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	56.067	15.993
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	327.647	556.754

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.4. EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa

Deskribapena	2017*	2018
A Ibilgetua	16.033.586	15.895.260
1 Ibilgetu materiala	11.799.634	11.697.793
2 Ibilgetu ez-materiala	248.280	196.394
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	12.227	25.748
4 Herri-ondasunak	3.972.664	3.974.544
5 Finantza-ibilgetua	780	780
C Zirkulatzaila	3.280.062	3.532.178
7 Izakinak	0	0
8 Zordunak	2.740.805	2.817.786
9 Finantza-kontuak	539.257	714.392
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak	0	0
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	0
Aktiboa, guztira	19.313.648	19.427.438

* Auditatu gabeko ekitaldia

Pasiboa

Deskribapena	2017*	2018
A Funts berekiak	14.611.297	15.144.715
1 Ondarea eta erreserbak	7.463.158	7.838.109
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	364.305	70.267
3 Kapitaleko dirulaguntzak	6.783.834	7.236.339
B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0	0
C Epe luzeko hartzekodunak	3.947.111	3.692.965
4 Jasotako mailegu, fidantza eta gordailuak	3.947.111	3.692.965
D Epe laburreko hartzekodunak	755.240	589.757
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	755.240	589.209
6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0	548
Pasiboa, guztira	19.313.648	19.427.438

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2017*	2018	Hartzeko	2017*	2018
Deskribapena			Deskribapena		
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako izakinak	0	0
61 Langile-gastuak	1.247.862	1.289.620	70 Salmentak	434.046	443.195
62 Finantza-gastuak	78.615	67.832	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	385.219	347.628
63 Tributuak	0	0	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.157.893	1.128.625
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.398.309	1.525.712	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	220.012	236.585
65 Gizarte prestazioak	172.687	148.207	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	1.151.904	1.230.065
67 Transferentzia arruntak	173.194	190.342	77 Kapitalaren gaineko zergak	186.754	128.745
68 Kapital-transferentziak	1.001	0	78 Bestelako diru-sarrerak	228.642	199.804
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	305.335	344.569	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	387.467	148.365	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
Guztira	3.764.470	3.714.647	Guztira	3.764.470	3.714.647

* Auditatu gabeko ekitaldia

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2017*	2018	Deskribapena	2017*	2018
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	387.467	148.365
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	426	0	82 Ezohiko emaitzak	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako aitortutako eskubideen eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	22.736	78.098	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	9.945	0
89 Etekin garbia, guztira (Saldo hartzekoduna)	374.250	70.267	89 Etekin garbia, guztira (Saldo zorduna)	0	0
Guztira	395.395	148.365	Guztira	395.395	148.365

* Auditatu gabeko ekitaldia

VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. UDALAREN AURREKONTU OROKORRA

Udalaren 2018rako hasierako aurrekontuak 3,88 milioi euroko diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurreikuspenak jasotzen zituen.

440.000 euroko aurrekontu-aldaketa batzuk eginda —hasierako kredituen ehuneko 11 egiten dute—, 4,31 milioi eurokoak dira aurreikusitako behin betiko gastu eta diru-sarrerak.

Aurrekontuaren likidazioa

2018an, gastuek 3,72 milioi euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 86koa eta ordaintze-maila ehuneko 96koa izan dira. Aurreko ekitaldikoak baino ehuneko bi handiagoak izan ziren.

Diru-sarrerei dagokienez, 2018an 4,21 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, eta betetze- eta kobratze-mailak ehuneko 98 eta 89koak izan ziren, hurrenez hurren. Igoera ehuneko 10ekoa izan zen, 2017. ekitaldiarekin alderatuta.

Taula honetan ageri dira Udalaren gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantza-iturria	Ehunekoa
Langileak	39	Tributu bidezko diru-sarrerak	42
Bestelako gastu arruntak	46	Transferentziak	40
Inbertsio errealak	7	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	18
Finantza-eragiketak	8		
Guztira	100		100

Hau da, gastu arruntek gastu osoaren ehuneko 85 esplikatzeko dute, eta horietatik langileria-gastuak gastu guztien ehuneko 39 dira, eta gainerako gastu arruntak, berriz, ehuneko 46. Bestalde, inbertsioek eta finantza eragiketek gastuen aurrekontu osoaren ehuneko 15 egin zuten guztira. Diru-sarrerei dagokienez, iturri nagusia tributu-izaerakoak izan ziren (% 42), eta ondoren transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak datoz, zeinek % 40 egiten baitute.

Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste diru-sarrera batzuek diru-sarreraren aurrekontuaren ehuneko 18 egin zuten. Haien osateratik ondoriozta daiteke Udalaren berezko diru-sarrerak ehuneko 60 direla, eta, beraz, kanpoko finantzaketa-iturriak baino handiagoak direla, iturri horiek ehuneko 40 baitira.

Ondoren, 2017ko eta 2018ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle guztien alderaketa bat erakusten dugu:

	2017	2018	Aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	3.813.631	4.213.573	10
Aitortutako betebeharrak, guztira	3.658.822	3.721.680	2
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	3.764.470	3.714.647	-1
Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	2.992.052	3.153.880	5
Kapitaleko diru-sarrerak	49.161	498.926	915
Kapitaleko gastuak	156.071	252.664	62
Saldo ez-finantzarioa	586.892	739.196	26
Aurrekontu-emaiza doitua	269.172	332.083	23

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2018ko diru-sarreraren likidazioa 399.942 eurotan handitu zen, eta horrek ehuneko hamarreko likidazio-maila handiagoa ekarri du, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, nagusiki kapital-transferentzien hazkundearen ondorioz, zeinak 403.344 euro, ehuneko 820, handitu baitziren eta transferentzia arrunten hazkundearen ondorioz, zeinak 78.161 euro, % 7, igo baitziren. Bestalde, zuzeneko zergak eta tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak ehuneko zazpi jaitسي ziren, hurrenez hurren, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

- 2018ko gastuak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko bi handiagoak izan ziren, batez ere ondasunetako eta zerbitzuetako gastu arruntetan behar baino 127.346 euro, ehuneko 9, erabili zirelako, eta inbertsioengatikoko gastuetan, berriz, behar baino 97.593 euro gehiago, ehuneko 63. Bestalde, finantza-pasiboengatikoko gastuak 184.780 euro jaitسي dira, ehuneko 43.

- Aurrekontu-emaiza doitua 332.083 eurokoa da: ehuneko 23 igo da aurreko ekitaldikoarekin alderatuta.

VI.2. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2018-12-31n

Ondoren 2018ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2017	2018	Aldea (%)
Aurrezki gordina	772.418	560.766	-27
Finantza-zama	510.699	315.136	-38
Aurrezki garbia	261.719	245.630	-6
Finantza-zamaren adierazlea	% 14	% 8	-37
Aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoa	21	15	-26
Zorpetze-ahalmena (%)	7	7	-
Zorra, guztira	3.940.269	3.692.965	-6
Biztanle bakoitzeko zorra	1.003	939	-6
Zorpetze-maila (zor bizia/diru-sarrera arruntak)	% 105	% 99	-5
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	327.647	556.754	70
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubideak)	% 48	% 42	-12
Kobranta zalantzarriaren indizea (Kobranta zalantzarriko zordunen saldoa/zordunak)*100	% 84	% 81	-3

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2018an, aurrezki gordina positiboa izan zen (560.766 euro), eta 211.652 euro —hau da, ehuneko 27— jaitسي zen aurreko ekitaldiarekiko, diru-sarrera arruntak ehuneko bat jaitسي zirelako eta funtzionamendu-gastuak ehuneko bost igo zirelako.

- Aurrezki garbia ere positiboa izan zen (245.630 euro). Horrek esan nahi du Udalak nahikoa baliabide arrunt sortu zituela funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari aurre egiteko; finantza-

zama, izan ere, ehuneko 38 jaitsi zen aurreko ekitaldiarekiko, eta aurrezki garbiaren jaitsiera ehuneko seihoa izan zen.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 556.754 eurokoa izan zen, eta horrek adierazten du likideziaz badagoela hurrengo ekitaldietako gastuen aurrekontuan aurrekontu-aldaketak finantzatzeko. Aurreko ekitaldiarekiko ehuneko 70 igo da, batez ere diruzaintzako funts likidoen igoerarengatik eta ekitaldiaren itxieran ordaintzeke zeuden betebeharren jaitsierarengatik.

- Zor bizia, 2018ko abenduaren 31n, 3,69 milioi eurokoa da, eta 247.304 euro jaitsi da; aurreko ekitaldiarekiko ehuneko sei. Saldo horren barruan, amortizatzeko dagoen mailegu bat badago, 1,37 milioi eurokoa, zeina 2010eko ekitaldian eskatu baitzen, lehen aipatutako hirigintza-jarduketaren likideziaz ezaren ondorioz. Gure txostenaren VI.5.11 atalean hori buruzko xehetasunak ematen ditugu.

Azken batean, finantza-egoera saneatua da, aztertutako adierazleen arabera, zeinak positiboak baitira eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta hobera egin baitute; hala ere, zorpetze-maila handia da, % 99koa baita. Magnitude horri dagokionez, komeni da adieraztea zorpetze berria baliatzeko Nafarroako Gobernuaren alde aurreko baimena beharko litzatekeela, diru-sarrerara arrunten ehuneko 75 gaintzen baitu, eta zorpetzeko gehieneko muga ehuneko 110 baita; azken ehuneko hori tokiko ogasun-esparruan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

VI.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionalen irizpideak jarraituta, soilik Udala bera jotzen da administrazio publikotzat, zeren eta ez baitago bestelako menpeko entitaterik; hona hemen datuak:

- Aurrekontu-egonkortasuna

0,72 milioi euroko finantzaketa-gaitasuna sortu da.

Finantzaketa-gaitasuna

	Zenbatekoa, 2018
Finantzaz besteko diru-sarrerak	4.213.573
Gastu ez-finantzarioak	-3.474.377
Saldo ez-finantzarioa	739.196
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Ixitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreraren kobrantzak	-22.716
Europar Batasunaren dirulaguntzak	0
Geroratutako ordainketa	0
Kontabilitate-sortzapeneko aldeak	0
Finantzaketa-gaitasuna	716.480

- Gastu-araua

2018ko ekitaldiko gastu konputagarria 89.546 euro txikiagoa da gehieneko gastu-muga baino; beraz, bete egiten da gastu-araua, ez baita gaintzen 2018rako baimendutako alde-tasa, ehuneko 2,4koa.

Gastu-araua

	2018ko zenbatekoa Udalaren gainean ehuneko 2,5	2018ko zenbatekoa fiskalizazioaren gainean, ehuneko 2,4	Aldea 2018ko zenbatekoa
2017ko gastu konputagarri bateratua	2.963.833	2.963.833	0
2018rako gehikuntza	74.096	71.132	2.964
2018rako aurreikusitako gastu-muga	3.037.929	3.034.965	2.964
2018ko gastu konputagarri bateratua	2.945.419	2.945.419	0
2018ko gastuan izandako desbideratzea	-92.510	-89.546	2.964

Adierazi behar dugu gastuaren araua kalkulatzeko orduan ehuneko 2,5eko igoera erabili dela, aplikatu beharreko ehuneko 2,4aren orde. Halere, egiaztatu dugu gastuaren araua bete egin dela.

Kalkuluak ekitaldian indarrean dagoen aplikazio-ehunekoaren arabera egitea gomendatzen dugu.

- Iraunkortasun finantzarioa

a) Zor publikoaren iraunkortasunari dagokionez, zorpetzea diru-sarrerara arrunten ehuneko 100 da, ezarritako ehuneko 110eko mugaren azpitik.

b) Ez daude jasota, eta eman ere ez dizkigute eman hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko datuak.

Ordaintzeko batez besteko aldiaren kalkulua aurkeztea gomendatzen dugu, bete den ala ez jasota gera dadin.

VI.4. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Kontuen Ganberak 1996an, 2006an eta 2010ean auditatu zuen Erriberriko Udala. 2010eko ekitaldiko auditoretzari dagokionez, finantza-iritzia eta betetzeari buruzkoa aldekoa izan zen, salbuespenik gabe, eta hainbat gomendio egin ziren, oro har, Udalak aplikatu dituenak. Hala ere, honako hauek gomendatzen jarraitzen dugu:

- *Zerbitzu jakin batzuetarako lizitazio berriak egitea edo kontratu-baldintzak negoziatzea.*
- *Langile-plantilla behin betiko finkatzeko, bitarteko gisa bete diren lanpostu horiek behin betirako eskaintzea eta deia egitea komeni den aztertzea.*

VI.5. KUDEAKETA-ALOR AIPAGARRIAK

VI.5.1. Alderdi orokorrak

2018ko ekitaldirako aurrekontua eta exekuzio-oinarriak behin betiko onetsi ziren, eta 2018ko martxoaren 26an NAOn argitaratu zirenean jarri ziren indarrean.

Haiek berrikusi ondoren, honako dokumentu hauek falta direla ikusi dugu:

- Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa eta indarrean dagoen aurrekontuaren likidazioaren aurrerapena, zeina gutxienez aurrekontu horren sei hilabeteri baitagokio.
- Toki entitateko langileei buruzko eranskina.
- Txosten ekonomiko-finantzarioa, kontu-hartzaitzak izenpetua.

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko maiatzaren 23an onetsi Kontu Orokorra, behin araudian eskatutako izapideak bete ondoren. Dena den, hura berrikusita, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Ibilgetua 2018ko abenduaren 31n 15,9 milioi eurotan baloratuta dago, 2017ko abenduaren 31n baino ehuneko bat gutxiago. Hala ere, inbentarioa dela eta, Udalak 25,2 milioi euroko balorazioa du, 2017ko ekitaldian Tracasa sozietate publikoak egin zuena.
- Diru-bilketa zaileko eskubideak 200.758 eurotan azpibaloratuta daude, haien saldoa itxitako ekitaldietako hartzekodunen kontu batekin konpentsatu baita; beraz, gastu orokorretarako diru-zaintza-gerakina zenbateko horretan gainbaloratuta dago. Bestalde, exekuzio-oinarrien arabera, diru-bilketa zaileko eskubidetzat jotzen dira ekitaldia itxi aurreko sei hilabeteak baino antzinatasun handiagoa duten saldoak.

Diru-bilketa zaileko eskubideen zenbatespenean, nahiz eta diruzaintza-gerakinean 2017ko ekitaldia ixtean kobratzeko dauden eskubideen ehuneko 100 kontuan hartu den, ezin izan dugu egiaztatu ekitaldiko lehen sei hilabeteetako saldo horren zatiaren zenbatespena.

- 9.945 euroko aldea dago emaitzen egoera-orriaren eta 2017ko ekitaldiaren amaierako balantzearen informazioaren artean, zeina itxitako aurrekontuetako eskubideen eta betebeharren aldaketaren atalean adierazitakoarekin bat baitator; beraz, alde hori erregularizatzea komeniko litzateke.

- 2018ko abenduaren 31n gerta litezkeen kontingentziei dagokienez, Erriberriko Udalak gora jotzeko prozedurak eta errekursoak irekita ditu zenbait demandarengatik, batez ere tributuarlokoak eta herri-aprobetxamenduetakoak, Kontu Orokorraren oroitidazkian agertzen ez direnak.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontuaren espedientea osatzea araudian eskatzen diren dokumentuekin.*
- *Inbentarioko datuak eguneratzea eta ibilgetuarenekin berdinkatzea.*
- *Diru-bilketa zaila edo ezinezkoa duten eta kobratzeke dauden eskubideen saldoen kalkulua egiaztatzea, exekuzio-oinarrietan ezarritakoaren arabera.*
- *Aurrekontuz kanpoko eta itxitako ekitaldietako hartzekodunen saldoak berrikustea, benetan ordainketa-betebeharrak direnak eta benetan ordainketa-betebeharrak ez direnak identifikatzeko, eta, kasua bada, dagozkien kontabilitate-doikuntzak egitea haiek erregularizatzeko aldera.*
- *Kontu Orokorraren oroitidazkian egiteke dauden prozesu judizialen ondoriozko balizko kontingentziak eta horien kuantifikazioa sartzeko.*

VI.5.2. Barne-kontrola

Kontu-hartzailetzaren barne-kontrola dela eta, honako hau esan behar dugu:

- Tokiko aurrekontu- eta ogasun-esparruak eginkizun hirukoitza ezartzen du: kontu-hartzailearena, finantza-kontrolarena eta eraginkortasunaren kontrolarena. Udalean, Kontu-hartzailetzak ez du kontrol finantzariorik eta eraginkortasunaren gaineko kontrolik egiten.

- Kontu-hartzailetzako eginkizunerako exekuzio-oinarrietan aurreikusitako alderdiak alde aurreko fiskalizazio mugatuak berezko dituenak dira, fiskalizazio mugatu hori, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean, 50.000 biztanletik gorako udalerrietarako bakarrik aurreikusita baitago, eta, beraz, ez baita Erriberriko Udalarri aplikatu dakioken kontrol-araubide bat.

Dokumentazioa berrikusi ondoren, gure ustez, hori izan da erabilitako fiskalizazio-araubidea, eta, horrenbestez, kontrol-araubide desegokia aplikatu da.

- Kontu-hartzailetzaren eginkizunak Udaleko kontu-hartzaileak betetzen ditu, beste baliabide pertsonalik izan gabe.

- 2018ko ekitaldian, ez da ageri Kontu-hartzailetzak egindako eragozpen-oharrik.

Gure gomendioak:

- *Aurreitiazko fiskalizazio mugatuaren araubidea erabili ordez, aurreitiazko fiskalizazio osoaren araubidea aplikatzea, zeren eta 50.000 biztanletik gorako udalerrientzat soilik aurreikusitako kontrol-sistema baita.*

- *Kontu-hartzailetzaren giza baliabideen nahikotasuna baloratzea barne-kontrola egiteko, eta, hala badagokio, finantza- eta eraginkortasun-kontrola egiteko behar beste baliabide ematea.*

VI.5.3. Langile-gastuak

Udalaren langile-gastuak 1,44 milioi eurokoak izan dira, eta haien betetze-maila behin betiko aurrekontu-kredituen ehuneko 97koa izan da. Ekitaldiko gastu guztien ehuneko 39 dira, eta aurreko ekitaldian baino ehuneko bat handiagoak izan dira, honako alde hauekin:

Udala	Aitortutako betebehargarbiak, 2017	Aitortutako betebehargarbiak, 2018	Aldea	Aldea (%)
Gobernu-organoak eta zuzendaritzako langileak	34.522	36.582	2.060	6
Funtzionarioak	540.241	544.181	3.940	1
Lan-kontratudun langileak	401.241	421.882	20.642	5
Bestelako langileak	300	450	150	50
Kuota sozialak	442.134	432.677	-9.457	-2
Guztira	1.418.438	1.435.772	17.335	1

Gastua handitu da, batez ere, aurrekontuei buruzko legeen arabera ordainsariak igo direlako, zinegotziei esleipen handiagoak egin zaizkielako eta baje eta eszedentzien ordezkapenak ezartzeko aldi baterako kontratazioak handitu direlako. Gizarte-kuoten gastuak behera egin du, batez ere, Montepioaren kostua jaitsi delako, araubide horren pean zegoen funtzionario batek erretiroa hartu ondoren.

Behin betiko plantilla organikoa 2018ko apirilaren 26ko NAO n argitaratu zen. Haren datuak honako hauek dira:

Zenbat	Lanpostuak
Funtzionarioak	20
Lan-kontratudun finkoak	11
Bitarteko langileak	1
Guztira	32

Honako hau da lanpostuen egoera 2018an:

	2018
Plantillako langileak	
Postu beteak	27
Lanpostu hutsak	5
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	% 16
Betetako lanpostu hutsak	4
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)	% 80
Bete gabeko lanpostu hutsak	1
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	% 20

2018an, lanpostu guztien ehuneko 16 hutsik daude; horietatik, ehuneko 80 aldi baterako beteta daude eta gainerakoek, ehuneko 20k, bete gabe jarraitzen dute.

Horri buruz, hauxe esan behar dugu:

- Udaleko lanpostu hutsak administrazio- eta lan-araubidean kontratatutako langileek betetzen dituzte. Antzeman da lanpostu bat administrazio-kontratuaren araubidean kontratatu dela, lan-araubidea aplikatu behar zitzaion arren.
- Bitarteko lanpostua amortizatu beharreko lanpostu gisa agertzen da 2018ko plantilla organikoan.
- 2018an ez da lan-eskaintza publikorik egin. Horri dagokionez, esan behar dugu plantillan badagoela lan-eskaintza publikoan sar daitekeen lanpostu bat, 2017ko eta 2018ko ekitaldietako

Estatuko aurrekontu orokorrei buruzko lege orokorretan aurreikusitako aldi baterako enpleguaren egonkortze-tasa gehigarria aplikatuta.

- Udaleko langileen nominen lagin bat hartu dugu, eta egindako berrikuspenetik nabarmendu beharra daukagu ezen, oro har, langileen espedienteak osorik daudela eta ordaindutako lantsariak bat datozela plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuekin eta espedientean jasotako inguruabar administratibo eta familiarrekin, eta araudian ezarritakoaren arabera dira, honako honengatik izan ezik:

a) Ordainsarien partidei 4.917 euro bidegabe egotzi zaizkie, kontratatutako langileen gizarte segurantzaren dela eta, bai eta mankomunitateari ordaindutako 3.225 euro ere, mankomunitateko langileek Udalarentzat egindako lanei dagozkienak.

b) Langileen arloko gastu txikiago baten gisara erregistratu dira Gizarte Segurantzaren lane-rako ezintasun iragankorren osagarriak, 15.237 eurokoak.

c) Bi langileren kasuan, PFEZagatik aplikatutako atxikipenak taula ofizialetan ezarritako mugaren azpitik aplikatu dira.

d) Ez dago jasota egin beharreko aparteko orduetarako alde aurreko baimena eman denik. Beste alde batetik, aipatu behar dugu soilik langile bakoitzak sinatzen duela aparteko orduak egin izanaren justifikazioa, eta ondoren nominaren bidez ordaintzeko bidaltzen dela.

Gure gomendioak:

- *Lan-eskaintza publikoa onestea eta plantilla organikoan dauden lanpostu hutsen deialdia egitea, Estatuko aurrekontu orokorren legeetan aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarriak ematen duen aukeraz baliatuta.*

- *Gastuak dagozkien partidetan egozte, kontzeptuaren eta izaeraren arabera.*

- *PFEZaren atxikipena kasu guztietan egitea, aplikatu beharreko taulen arabera.*

- *Aparteko orduak egiteko alde aurreko baimen-prozedura bat ezartzea, bai eta ondoren haiek berrikustea ere, aparteko ordu horiek egin direla eta nominan behar bezala sartu direla bermatzeko; halaber, egiaztatuko da ez dela gainditu lege ezarritako muga.*

VI.5.4. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak 1,53 milioi eurokoak izan ziren, ekitaldian aitortutako obligazio guztien ehuneko 41 dira, eta haien betetzea behin betiko kredituen ehuneko 99koa izan zen, aurreko ekitaldiko gastuak baino ehuneko bederatzita handiagoak.

Gastuen kapitulu honen fiskalizazioa gastu-partiden honako lagin honen gainean egin da:

Partidak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Gastu finkoak eta herri-lurretako aldagaiak	208.448
Kiroldegiaren kudeaketa adjudikatzeko kontratua	124.720
Argiteria publikorako energia elektrikoa	111.328
Ikastetxea garbitzeko kontratua	70.504
Sorosle- eta monitore-zerbitzuak ematea	25.150
Udalaren egoitzetako telefono-gastuak	25.074
Kiroldegiko energia elektrikoa	21.781
Jubiloteka	21.120
Guztira	608.125

Berrikuspenera eginda, ateratzen dugun konklusioa da ezen, oro har, berrikusitako aurrekontu-partidetako gastuak egindako kontratuen arabera justifikatuta daudela, onetsita daudela, kontuhartzaileak baimenduta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta epean ordaindu direla.

Dena den, honako gorabehera hauek azpimarratzen ditugu:

- Ez dago jasota honako zerbitzu eta hornidura hauetan adjudikazio-prozedurarik dagoenik:

Kontratua	Aitortutako betebeharrak, 2018
Argiteria publikorako energia elektrikoa	101.723
Udalaren egoitzetako telefono-gastuak	25.075
Kiroldegiko energia elektrikoa	21.725
Guztira	148.523

- Ikastetxearen garbiketa-kontratua Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legeari jarraituz adjudikatu zen. Geroztik, honako datu hauen arabera aldatu zen:

Kontratua	Adjudikazioaren prezioa	Onetsitako aldaketa	Desbideratzea (%)
Ikastetxea garbitzeko kontratua	117.031	37.177	31,2

Egin dugun berrikuspenean oinarritua, honako hau adierazi behar dugu:

a) Garbiketa-orduak luzatzeari buruzko txosten bat dago, baina ez da ematen ordu horiek igotzearen arrazoia.

b) Kontratuaren aldaketak kontratazio publikoaren araudian ezarritako ehuneko 20ko muga gainditu du, eta ez dago jasota kontratua suntsiarazteko arrazoen inongo ohararazpenik egin izana.

c) Kontratua automatikoki suntsiarazi beharko zen ehuneko 20ko muga hori gainditzean.

- Ez da PFEZren atxikipenik aplikatzen "Ludoteka kudeatzeko laguntza" izeneko zerbitzua-rengatik jasotako fakturretan, nahiz eta tributu -betebeharra izan, adjudikazio-hartzailea profesionaltzat jotzen baita ikuspuntu fiskaletik.

Gure gomendioak:

- *Behar diren adjudikazio-espeditentak izapidetzea kalkulaturako zenbatekoagatik araudia-aren arabera hala jokatu behar den kontratuen kasuan.*

- *Kontratua aldatzeko arrazoiak behar bezala egiaztatzea, eta kontratuen aldaketak lege- ezarritako muga arabera egokitzea.*

- *Kontratuak suntsiaraztea araudiak hala eskatzen duen kasuetan.*

- *Profesionalengandik jasotako zerbitzuei dagozkien PFEZagatiko atxikipenak aplikatzea.*

VI.5.5. Transferentzia arruntetako gastuak

Transferentzia arruntetako gastuak 190.342 eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko bost egiten dute; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 97koa izan zen.

Aurreko ekitaldian baino ehuneko hamar handiagoak izan ziren, batez ere etxez etxeko laguntza-zerbitzuagatik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari egindako transferentzietan 15.911 euro gehiago jaso zirelako.

Berrikuspena gastu-partiden honako lagin honen gainean egin dugu:

Partidak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Gizarte zerbitzuen etxez etxeko laguntza	82.528
Erdi aroko azoka antolatzeako dirulaguntza	24.560
Erdialdearen garapenerako partzuergoa	16.800
Musika bandarentzako dirulaguntza	13.600
Guztira	137.488

Transferentziak egiteko eta dirulaguntzak emateko prozedura eta, hala badagokio, horien oinarri arautzaileak, justifikazioa, onespena, fiskalizazioa, kontabilizazioa eta ordainketa egiaztatu ditugu.

Berrikuspen horiek eginda, esan beharra daukagu ezen, oro har, transferentziak eta dirulaguntzak aplikatzeko den araudiari jarraituz eman eta kontabilizatu direla; halere, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Ez dago jasota dirulaguntzen plan estrategikorik dagoenik.
- Ez dago jasota lankidetzaz hitzarmenik dagoenik, musika bandarentzako dirulaguntzari euskarria ematen dionik.

Gure gomendioak:

- *Dirulaguntzen plan estrategiko bat onestea eta dirulaguntzak banatzeko irizpideak ezarzteaz Udalak lehentasuna ematen dien helburuak kontuan hartuta.*
- *Zuzeneko emakidaren araubidearen bidez kudeatzen diren dirulaguntzen partidetarako kasuko lankidetzaz hitzarmenak sinatzea.*

VI.5.6. Inbertsioak

252.664 milioi euroko inbertsioak egin ziren, eta 2018an aitortutako betebeharrak guztien ehuneko zazpi egin zuten. Behin betiko kredituen ehuneko 33ko betetze-maila izan zuten, ez baitziren egin aurreikusitako obra batzuk, zenbateko aipagarria zutenak. Halere, 97.593 euro egin zuten gora, ehuneko 63, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

2018an aitortutako betebeharrak 2017koak baino nabarmen handiagoak dira inbertsio gehiago egin baitira; honako hauek izan dira inbertsio nagusiak:

Deskribapena	Aitortutako betebeharrak, 2018
Inbertsioak ikastetxean	94.852
Miranda Argako eta Artaxoa kaleetako edateko uraren hornidura berritzea	43.932
Plazako komunak berritzea	31.807
Kiroldegiko inbertsioak	20.857
	191.448

Gastuen kapitulu honen fiskalizazioa 2018an lizitatutako eta/edo adjudikatutako gastupartiden eta obra-kontratuen lagin baten gainean egin da.

Gastu-partidak

Deskribapena	Aitortutako betebeharrak, 2018
Inbertsioak ikastetxean	94.852
Miranda Argako eta Artaxoa kaleetako edateko uraren hornidura berritzea	43.932

Gure azterketatik ateratzen dugun konklusioa da ezen, oro har, berrikusitako aurrekontu-partidetako gastuak onetsita daudela, kontu-hartzaileak baimenduta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta epean ordaindu direla.

Ikastetxeko inbertsioei dagokien kontratuaren exekuzioari dagokionez —Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen arabera adjudikatu zen kontratu hori—, honako desbideratze hau gertatu da:

Inbertsioak ikastetxean	Adjudikazioko prezioa*	Likidazioa*	Desbideratzea (%)
Ikastetxe publikoko komunetako obren ziurtagiria	54.758	51.300	6

* BEZik gabeko zenbatekoak

Halaber, bi obren adjudikazio-hartzaileak honako faktura hauek ere jaulki ditu, data berean:

Kontzeptua	Zenbatekoa, BEZik gabe
Kanpoko kutxetetako obrak eta ur-konexioa	6.431
Ikastetxean trenkada bat eraitea eta beste bat egitea	1.039

Ez dago jasota aipatutako desbideratzeari euskarri ematen dion ez informaziorik, ez dokumentaziorik

Kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa

Kultur etxean igogailua instalatzeko kontratuaren honako lizitazio hau berrikusi dugu. Honako hauek dira datuak:

Kontzeptua	Adjudikazio-prozedura	Esparru juridikoa	Zenbat lizitatuak	Diru-zenbatekoa Lizitazioa*	Adjudikazioko prezioa*	Beherapena (%)
Kultur etxean igogailua instalatzea	Erraztua	2/2018 Foru Legea	2	82.341	74.930	9

* BEZik gabeko zenbatekoak

Kontratu horren adjudikazioa 2019an egin da.

Egindako berrikuspenean oinarrituta, lizitazio-prozedura eta haren adjudikazioa aplikatu beharreko kontratu-esparruaren arabera egin dira.

Obrak adjudikatzearen zenbatekoen eta azken likidazioaren arteko aldeak behar bezala dokumentatzea gomendatzen dugu, baita obra nagusiarekin zerikusia izan dezaketen fakturen zerrenda ere.

VI.5.7. Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk

Zergak eta tasak

Udalaren tributu bidezko diru-sarrerak 1,77 milioi eurokoak izan ziren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 42 dira. Hauek dira:

Zuzeneko zergak	1.414.506	
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0	
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	872.047	
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	236.041	
Hiri-lurren balioaren igoera	128.745	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	177.129	
Barrutiaren gaineko zerga	544	
Zeharkako zergak	79.449	
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	79.449	
Tasak	275.835	275.835

Hauek dira Osoko Bilkurak 2018ko ekitaldirako onetsi zituen ordenantza fiskaletan ezarritako zerga-tasak:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,228	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,22	1 - 1,4
Hiri-lurren balio-gehikuntza	19,47	8-25
Eraikinak, instalazioak eta obrak	4,36	2-5

Azken balorazio-ponentzia 2017ko maiatzean onetsi zen.

Berrikuspena diru-sarreraren partida hauen lagin baten gainean egin da:

Aitortutako eskubide garbiak, 2018	
Zergak	
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	872.047
Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	128.745
EIOZa	79.449
Tasak	
Udal igerilekuetako abonamenduak eta sarrerak	77.048

Egindako lanean egiaztatu dugu, oro har, haien likidazioa eta bilketa arau erregulatzaileren arabera egiten direla, nahiz eta aipatu beharra daukagun ez dagoela kostuen azterketarik, onetsitako tasen euskarria denik.

Kostuen azterketa bat onestea gomendatzen dugu, tasen zenbatekoa justifikatzeko.

Prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Diru-sarrera horiek 0,39 milioi eurokoak izan ziren 2018an. 2018ko eta 2017ko diru-sarreraren partida nagusien konparazioa honako hau da:

Prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitortutako eskubide garbiak, 2017	Aitortutako eskubide garbiak, 2018	Aldea	%
Herri-lurren gastuen eragina	161.444	168.953	7.509	5
Musikako ikasleen diru-bilketa	136.573	131.297	-5.276	4
Isunak ezartzearen ondoriozko diru-sarrerak	51.293	24.355	-26.938	-53
Erakusketako sarreraren bidezko diru-sarrerak	13.279	10.619	-2.661	-20
Aseguru-etxeen kalte-ordainak	47.373	10.009	-37.364	-79
Premiamendu-errekargua eta beste batzuk	12.318	9.422	-2.896	-24
Jaietako egitaraua eta iragarkiak	9.102	9.130	28	0
	431.382	363.785	-67.597	-16

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta gertatu den ehuneko 16ko jaitsiera horren arrazoi nagusia da 2017an diru-sarrera handiak aitortu zirela isunak ezartzeagatik, premiamendu-errekarguengatik eta aseguru-etxeen kalte-ordainengatik.

Berrikuspena diru-sarreraren honako lagin honen gainean egin dugu:

Prezio publikoak	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Herri-lurren gastuen eragina	168.953
Musikako ikasleen diru-bilketa	131.297

Egindako lanean egiaztatu dugu, oro har, haien likidazioa eta bilketa ordenantzen eta aplikatzekoa den araudiaren arabera egin direla.

Hala ere, tasen kasuan aztertu dugun bezala, ordenantzetan onetsitako prezio publikoen euskarri izanen den kostuen azterketarik ez dagoela adierazi nahi dugu.

Kostuen azterketa bat onartzea gomendatzen dugu, prezio publikoen zenbatekoa justifikatzeko.

VI.5.8. Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak

Diru-sarrera horiek 1,23 milioi eurokoak izan ziren 2018an, eta 1,15 milioi eurokoak 2017an. Honakoa hau da diru-sarretako partida nagusien alderaketa:

	Aitortutako eskubide garbiak, 2017	Aitortutako eskubide garbiak, 2018	Aldea	%
Toki-ogasunen partaidetza-funtsa	955.714	1.000.507	44.793	5
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, Montepioa finantzatzeko	61.290	91.415	30.125	49
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, langile langabeak kontratatuzeko	30.750	37.800	7.050	23
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, musika eskolaren funtzionamendurako	33.568	35.897	2.329	7
Zinegotzientzako ordainsariengatik partaidetza-funtsa	31.501	32.162	661	2
	1.112.823	1.197.871	84.958	8

Diru-sarrerak handitu dira Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsetik jasotako zenbateko handiagoengatik eta funtzionarioen montepioaren kostua finantzatzeko jasotako dirulaguntzengatik.

Berrikuspena diru-sarreretako partiden honako lagin honen gainean egin dugu:

	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, Montepioa finantzatzeko	91.415
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, langile langabeak kontratatuzeko	37.800

Egindako berrikuspenean oinarrituta, ikusi dugu transferentziak eta dirulaguntzak aplikatzeko den araudiaren arabera kudeatu direla. Hala ere, honako hau aipatu behar dugu montepioa finantzatzeko dirulaguntza dela eta:

- Egindako likidazioan, montepioen araubidearen peko funtzionario-kategoria duen langile baten 2017ko soldata-kostua baino 5.233 euro handiagoa den zenbatekoa jaso da. Ez dakigu zein den aipatutako aldea egotearen arrazoia.

Jasotako 5.233 euroko diru-sarrera handiagoa argitzea gomendatzen dugu, eta zenbateko hori erregularizatu eta, hala badagokio, Nafarroako Gobernuari itzultzea.

VI.5.9. Ondare bidezko diru-sarrerak

Ondare bidezko diru-sarrerak 324.111 eurokoak izan ziren, eta diru-sarrera guztien ehuneko zortzi egiten dute. Likidazioa behin betiko aurreikuspenen ehuneko 93 izan zen, eta ehuneko bi jaitzi zen aurreko ekitaldiarekiko; jaitziera hori, nagusiki hilerriaren administrazio-emakiden bidez diru-sarrera txikiagoak — ehuneko 15 txikiagoak— izateari eta lehorreko lursailen emakiden bidezko diru-sarrerak ehuneko 17 jaitzi izanari zor zaie.

Berrikuspena diru-sareren honako partidaren gainean egin dugu:

	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
lhinztatze bidezko ureztaketa duten lurzatiak	121.961

Egindako berrikuspenetik egiaztatu dugu, oro har, lurzatiaren adjudikazioa, likidazioa eta bilketa Nafarroako toki entitateen ondasunen esparru arautzailean eta dagozkien ordenantzetan xedatutakoaren arabera egin direla.

VI.5.10. Kapital-transferentziak

Kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 452.505 eurokoak izan ziren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 11 egiten dute. Likidazioa behin betiko aurreikuspenen ehuneko 123 izan zen, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta 403.344 eurotan handitu zen, ehuneko 820.

Alde nabarmen hori Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen, 2017-2019ko Toki Inbertsioen Planaren eta inbertsio jakin batzuei lotutako dirulaguntzen aitortzearen ondorioa da. Diru-sareren kapitulu horren berrikuspena dirulaguntzetako partiden honako lagin honen gainean egin da:

	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Toki azpiegituren planeko dirulaguntza, Orba Ibarearen argiteria	116.922
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, libreki erabakitakoa	150.000
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, kultur etxean igogailua jartzeko	62.249
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, hezkuntza zentroak hobetzeko	50.228

Egindako berrikuspenean egiaztatu dugu ezen, oro har, jasotako dirulaguntzak aplikatzekoa den araudiaren arabera kudeatu direla, nahiz eta adierazi nahi dugun erabaki libreko 150.000 euroko dirulaguntza esleitu dela 2018an egindako hainbat obra finantzatzeko; horietatik 48.838 euro kaleetako eta bideetako konponketen kontzeptuari dagozkie.

Gastu horiek ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten kapitulari egotzi zaizkie; finantzaketaren jatorriagatik eta gauzatutako jarduketaren izaeragatik, ordea, inbertsioen kapitulari egotzi behar zitzaizkion.

Kapital transferentziekin finantzatuta dauden gastuak inbertsioen kapitulari egozte gomentatzen dugu.

VI.5.11. Hirigintza

Hirigintzari dagokionez, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Azken balorazio-ponentzia 2017ko maiatzean onetsi zen.
- Lurzoruaren udal ondarearen erregistroa badute, bai eta hirigintza-hitzarmenen artxiboaren erregistroa ere.

2010eko ekitaldian egindako auditoretzan, aurrekontuan eragina duen hirigintza-jarduketa bat jarri zen agerian, zeina Erriberriko Udal Plan Orokorreko UER-3 egikaritze-unitateko jarduketari buruzkoa baita¹. Unitate horren exekuzioa lankidetzaren bidez gauzatu zen; haren arabera, jabeek nahitaez laga beharreko lurzoria ekartzen dute eta Udalak urbanizazio haien kontura egiten ditu.

Haren exekuzioa dela eta, honako hau adierazi behar dugu:

- 2008ko ekitaldian birzaitze proiektua onetsi ondoren, gerora behin-behineko eta behin betiko likidazio kontuak onetsi ziren. Aipatu behar dugu jabeekide batek Udalaren 2013ko urtarrileko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsitako behin betiko likidazio-kontuaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuela, eta administrazioarekiko auzien epaitegiak hura 2014ko abenduan ezetsi zuela lehen auzialdian; ondoren, Justizia Auzitegi Nagusiaren apelazio-egoitzan ezetsi zen, 2016ko otsailean.
- Udalak behin betiko likidazio-kontuaren arabera igorri ditu urbanizazio-kuotak. Kontu hori egoitza judizialean berretsi zen, eta, beraz, zor horiek guztiz exekutiboak eta irmoak dira.

Honako hau nabarmendu behar dugu:

a) 2018ko ekitaldia ixtean, itxikako ekitaldietako kobratzeke dagoen saldo bat ageri da Egoeraren Balantzean, 1,87 milioi eurokoa; kopuru horretatik, 1,61 milioi euro kobratzeke dauden urbanizazio-kuoten zenbatekoari dagozkio, eta 0,26 milioi euro, berriz, haiei dagokien BEZa aplikatzeari.

b) Bi zenbateko horiek diruzaintza-gerakinaren kalkuluan ageri dira, eta oso-osorik bilketa zailko eskubidetzat hartzen dira, 272/1998 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

- 2010eko txostenean jasotakoaren arabera, likideziaz gabeko egoera bat sortu zen Udalean, 2,14 milioi euroko mailegu batera joz konpondu behar izan zena, eta 2018ko ekitaldia ixtean amortizatzeke dagoen saldo bat agertzen da, 1,37 milioi eurokoa, hau da, ehuneko 64koa.

¹ Erriberriko Udal Plana 2006ko azaroan onetsi zen behin betiko, Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeari (LAHFL) jarraituz. 2007ko urtarrilean argitaratu zen.

- Txosten hau egin den datan, ez da eraikuntza-jarduketarik bat ere egin exekuzio-unitate horretan.
- Kobratzeke dagoen zorraren eta hari lotutako zorpetzearen egoera ikusita, eta jabeekin eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren Departamentuko arduradun teknikoekin hainbat bilera egin ondoren, kanpoko txosten juridiko bat egin da 2019ko martxoan unitate horren bideragarritasun ekonomikoari buruz, eta hainbat aukera azaldu dira bertan.

Gure ustez, neurri egokiak premiaz hartu behar dira kobratu gabe dauden zorrak benetan kobratzeko. Beharrezkoa da hirigintza-jarduketa horri lotutako mailegua murriztea, etorkizunean, zorpetze berria behar bada, inbertsioak ez baldintzatzeko.

Udalarentzat gutxien garestia den hirigintza-irtenbidea premiaz hartzea gomendatzen dugu, halako moduz non kobratu gabe dauden hirigintza-kuotak likidatuko baitira eta horri lotutako zorpetzea gutxituko baita, etorkizuneko inbertsioei lotutako zorpetze-eragiketa berriak ez mugatzeko.

VI.5.12. Ingurune teknologikoa

Informazio- eta teknologia-sistemek funtsezko eginkizun bat dute edozein erakunderen kudeaketan. Garrantzi handia dutenez, Erriberriko Udalaren Kontu Orokorren txostenean sartu ditugu, lehen aldiz, "ingurune teknologikoari" edo informazio ekonomiko-finantzarioko sistemari eta informazioaren teknologiak direla-eta Udalak egiten dituen kontrolei buruz atera ditugun ondorioak.

Informazioaren teknologien kudeatzailea Animsa udal sozietate publikoa da. Azterketa hori egiteko, galdetegi orokor bat bidali eta dokumentazioa eskatu genuen; horrek aukera emanen zigun ingurune teknologikoa orokorrean ebaluatzeko.

Oro har, zibersegurtasunaren kudeaketa egokia egiten bada ere, honako akats hauek aipatu behar ditugu:

- Ez zaio heldu Segurtasun Eskema Nazionalaren araberrako ezarpenari.
- Ez dago jasota erabiltzaile administratzaileen baimena eta erabilera arautzen dituen eta erabiltzaile administratzaile izendunak sortzera behartzen duen idatzizko prozedurarik dagoenik.
- Pasahitzak autentifikatzeko politikak nolabaiteko ahultasun-maila du.
- Gailu mugikorren segurtasun politikak ez dira nahikoak.
- Ez dago jasota Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betetzeari buruzko dokumentaziorik.
- Ez daukagu Faktura elektronikoa sustatzeko eta fakturen kontularitza-erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak eskatzen duen sistemen urteko auditoretza-txostenari buruzko informaziorik.

Gure gomendioak:

- *Segurtasun Eskema Nazionalaren araberrako ingurune teknologikoa ezartzea.*
- *Administrazio-privilegioen kudeaketa hobetzea, erabiltzaile administratzaileen baimena eta erabilera arautzen duen idatzizko prozedura bat sortuz, erabiltzaile administratzaile izendunak sortzera behartuz, eta kontu generikoak erabiltzeko biderik eman gabe.*
- *Pasahitzen bidezko autentifikazio-politika indartzea, haren konfigurazioa behartuz ohiko jardunbide egokiei jarraitzea, hizki, zenbaki eta karaktere bereziak izan ditzaten.*
- *Gailu mugikorren segurtasun politikak indartzea.*
- *Datu pertsonalen babesaren esparru arautzailea betetzen dela justifikatzen duen dokumentazioa egiaztatzea.*

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2019ko abenduaren 18an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

Legelari Nagusi Silvia Doménech Alegre andrea izendatzea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko Burutzaren eginkizunak behin-behinekoz har ditzan.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Pasa den 2020ko urtarrilaren 25ean Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko Buruaren erretiroa gauzatu zen, eta harrezkero aipatu Burutza hutsik dago.

Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko erregelamenduak, beste burutzen kasuetan ez bezala, bere artikuluetan ez du arautzen nola izendatu ezta nola ordeztu kargua hutsik dagoenean, edo titularra kanpoan edo eri dagoenean ere.

Arazoi hori dela medio, aipatu erregelamenduaren aldaketa izapidetu bitartean, Legebiltzarreko Legelari Nagusi eta Idazkari Orokorra den Silvia Doménech Alegre andrea izendatu behar da Burutza horri dagozkion eginkizunak behin-behinekoz har ditzan –18. artikulua xedatutakoa jarraikiz, eginkizun horiek orain arte bere

ardurapean eraman dira–, Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuaren eginkizunak eraginkortasunez betetzen jarrai dezan eta eragozpenak sor ez daitezen.

Horiek horrela, eta Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko erregelamenduen 1.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Legelari Nagusi Silvia Doménech Alegre andrea izendatzea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko Burutzaren eginkizunak behin-behinekoz har ditzan, Burutza hori nola hautatu arautuko duen Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko erregelamenduaren aldaketa izapidetu bitartean.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias